



Azaroaren 17an Barakaldoko 12 gazte epaituak izango dira, Makala II Gaztetxearen okupazioagatik. Ertzaintzak 12 gazte hauek, 2014ko irailean identifikatu zituen, Makala II Gaztetxean egindako asanblada irekian. Fiskaltzak guztira 21.600€ isuna eskatu du, usurpazio delitua egotzita. Makala II Gaztetxeak azpimarratu du azken bi urteetan egindako lana auzoa eta beste sistema baten alde: hitzaldiak, tailerrak, jardunaldiak... eta gaztetxea kolektibo ezberdinek biltzeko erabili dutela. Gainera salatu du lotsagarria dela etxeak eta lokalak utzik egotea, etxebizitza beharrak dauden bitartean, legala izan arren. Datozen hilabeteetan epaiketa hau salatzeko hainbat mobilizazio eta ekimen egingo dituzte, horien artean azaroaren 17an kontzentrazioa egingo dute goizeko 09:00etan epaitegien aurrean.

Makala II Gaztetxearen oharra:

12 AUZIPERATU MAKALA II GAZTETXEA AURRERA



Autogestioa ez da delitua!

- **12 jóvenes** serán juzgadas el **17 de noviembre** a las **9:30** (Palacio de Justicia)
- **21.600 €** de petición fiscal por ser identificadas en el interior del gaztetxe
- **5 años** llevaba tapiado el local antes de ser okupado y abierto al barrio
- **Muchas personas y organizaciones** lo utilizan regularmente
- **¡SOLIDARÍZATE Y APOYA SU ABSOLUCIÓN!**



*21.600 arrazoai
12ak absoltitzeko!*